ERREPORTAJEA ELGOIBARKO ESKOLETAN MATRIKULATU DIREN KANPOTARRAK GEHIGARRIA MANUEL SALEGIRI ELKARRIZKETA KULTURA "BESTELAKO ZINEA"-ren 8.ETAPA AZAROAREN 15ean HASIKO DA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko azaroaren 9a/IX. urtea/382. zkia



# Bizimodu berria hasteko aukera Elgoibarren

# BASKO RENT

GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKAIRUA

Sigmako industrialdea, 7 eta 8 pabilioiak.

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI eta PREST1



**TAILER ZERBITZUA**

OLIOAREN edo FILTROEN ALDAKETA
PNEUMATIKOEN AZTERKETA eta ALDAKETA
BALAZTEN eta ESEKIDURAREN AZTERKETA
MANTENIMENDU OROKORRA

orr 902 103 287

NORRETAZ GAIN,GARBIKETA ZERBITZUA ERE ZURE ESKU DUGU.

GARBIKETA 400pta.

GARBIKETA, LEHORKETA eta ARGIZARIA EMATEA 500pta.

GA BIKETA BEREZIA 700pta

# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA

**San Frantzisko, 43 -1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**ordutegi berria**

**10:00etatik-12:30era**
**15:00etatik-20:30era**

**Ego Gain, 4 behea**
(San Anciles pasealekutik)
Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR



## Ogiaren garrantzia

Eguneroko bizitzan inori ahazten ez zaion jatekoa da ogia. Aste honetan bertan, Erizaintzako sei ikaslek "Felix Mokoroa" saria jaso dute ogiaren inguruko ikerketa egiteagatik. Beraz, ogia uste duguna baino garrantzitsuagoa da, sendagile gehienek kontrakoa esaten duten arren. Okinak ondo baino hobeto konturatu dira ogiaren garrantziaz. Azken urteotan ogiaren salneurriak gora egin du etengabean. Prezioen gorakadak jasatera ohituta gaude kontsumitzaileok, baina normalean, urte berria hastearekin batera ematen dira. Oraingoan, ordea, okinek ez dute itxaron. Astean 8 pezeta garestiagoa da ogia, eta asteburuan 18. Horrela, ogi barra batek 123 pezeta balio ditu astelehen buruzuri batean, eta hamar pezeta gehiago igandean besterik gabe. Zein da honen guztiaren arazoa? Pezetaren balioa hain eskasa izanik, sarritan ez dizkigute bueltak behar bezala ematen. Zenbakiak borobildu egiten dira, hortaz, ogia erostera joaten garenean, askotan 125 pezeta kobratzen dizkigute. Honelako huskeria bati ez diogu benetan daukan garrantzia ematen. Kontuak ateraz gero, urte amaieran uste duguna baino gehiago lapurtu digute, eta gure baimen osoarekin gainera. Bi pezetarengatik protesta egitera ez gara ausartzen, baina bueltatzen ez dizkigun dendariak, beti bere alde jokatzen du. Euroarekin ere gauza bera gertatuko ote da? Zentimoen erabilera izan daiteke irtenbidea, baina prezioak borobiltzeko joera horrekin jarraitzen badute, gauzak balio dutena baino gehiago ordaintzen jarraituko dugu. Ez gaitzatela engainatu.

Cn 151— O N •

Ainhoa Andonegi



## Eskubi deen inguruan

Gizakiok ez omen dugu errealitatearen kontzientzia jarraia. Filmetan bezala, fotogrametan bana genezake gure inguruaren pertzepzioa. Segundu erdi baino apur bat gehiago igarotzen da normalean gure inguruan gertatzen denaren bertsio eguneratua (segunduratua esan beharko nuke?) izan aurretik.

Halere, gure garuna makina konplexua da eta, argazkilari profesionalen kamerak bezala, inguruko errealitatearen abiadurara egokitu daiteke. Inguntne arrotz eta aldakorretan kontzientziaren berrizpenaren abiadura handiago bat garatzen du. Eguneroko egoeretan, berriz, ez du ingurunea berrarakatzeko inongo presarik izaten.

Azken urteotan nire garunak jokamolde propioa garatu du. Goizeko lehen kafearekin irakurtzen dudan egunkariaren zain egoten da inguruko errealitatearen abiaduraren lehen diagnosia egiteko. Euskal Herriko berriak irakurtzen ditut lehendabizi eta nire garunak abiadura motela jartzen du. Aurpegi berdinak, hitz berdinak, gatazka berdina. Nazioarteko gaietara pasatzen naizenean, aldiz, garuna aztoratu egiten zait. Neuronak dantzan hasten zaizkit. Batzuek Ipar Irlandan lortu dituzten aurrerapauso guztien berri eman nahi didate, Besteek Hirugarren Gerrate Mundialaren oihartzunak ekarri nahi dizkidate. Kirolen arlora pasatzen naizenean, nire garunak atsedena hartzen du berriz ere. Beno "hartzen zuen" esan beharko dut. Realean ere gauzak aldatzen hasi baitira azken hiru jardunaldietan. Dena dela, ez al da tristea gure herrian aldatzen den gauza bakarra futbol talde baten emaitzak izatea?

Alberto Ansuategi

Kexak ................................................ 5
1110tZ MotZ ........................................ 10
gehigarria ........................................ 13
kiRolAk ............................................ 20
aGenda ............................................ 24

### ETORKIZUNEAN PENTSATUTA EGINDAKO UDALETXEA?

Urriaren 26ko BARRENen, Mendaroko udaletxe berriari buruzko erreportajea egin zen. Izenburua, "Etorkizunean pentsatuta egindako udaletxea", oso egokia iruditu zitzaidan, bi puntu hauek kontutan hartuz gero:

Mendaro, 1,350 inguru bizilagunekin, 350 milioiko aurrekontua duen eraikuntza bat subentzionatzen ari da. Hori, hasiera bateko aurrekontua da, ez al da 400 milioitara ailegatuko?

Mendarok, aurten onartuko dituen aurrekontuetan, eraikuntza berriari 105 milioi emango dizkio eta aldi berean, %14,38ko diruzorra errekonozitzen du.

Bi datu sinple hauek eraikuntza honen despilfarroaren eta administrazio txarraren adierazgarriak dira,

**Mikel** Fidalgo

ASTEKARIA

**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topaguneacom
Helbide informatikoa:
www.topaguneacom/barren
AIIGRARATZAILEA
EigGiGarlo Izarra

LAGUNTZAILEA Ergoiharko Udala ZUZENCARIA Ek Aizpuru Kkzeirknotk Irati AgIrreazaldegI, Asier Orhea PUBEGETGEEA Andoitz Agirregomezkorta MAICETATZAILEA Bea Ansola ADMIGSTRaziokAmaia Rodrigez GERENTZPA Ainhoa Lodoso, Nestor Fuentes, Pellp Merdizabal, Juan M. Elustordo, Alherto Ansuategi, Edurne Bilbao, GoIzon Arrieta, Jor Peli Urlguen. KCILABORATZAILEAK, Lorea Perez de Albaniz, Jokin Marlinez, Olga UnzrIla, MontseArregi, Juanito Goroshza, Jan Gurrutxaga, Jon Eugi. Ainhoa Andonegi, Kokoe ICE. eta Urruzuno AZELEK0 ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik IlipEENATEGIA Gedu Koop, E. TIRAD4 4.000 ale LEGE GORDA1LUA SS.1.038/92 ISSN 1139.1855

ELGO1BARK0 1ZARRA
Xtlf.1,11

*Elgoibarko Udatak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Fora Aldundiak diruz lagundulako aldizkaria.*

site kutxa

1DANOBAT

GOITII
GRUPO DANOBA1

4,‘ESTARTA

# Urruzunoren begi ezkutua



Bedeinka zaitzatela aitak, semeak, eta esp. Auuuuu!! Zaharren zaharbegiratu zahargaitzeskorrak. Halaxe irten ziren elizako freskotasunetik iuuujuu domeka eguzkitsura. Jauzibrinkouluka. Badatoz. Poskitos, arroz inflado. Zeoze gehixo? Olantxe, eskerrik asko. Gero: ta oiñ ze? Guazen zure etxera! Ez, joe... Bai, baibai bai& by. Eske... bueeno. Joan ziren, Uraz Handik, algaraka antxitxika azkena ipurdi gizeena lelena Pokemon, Sartu ziren, jtjiji ssshhh jode ezinbultzalosu. Amama bakarrik zegoen etxean. Hola abuela prrrzzz eta biloba erdibituta barrez-negarrez. Doloresek ez du zirkinik egiten: pastelirribarrea hortzik gabeko ahoan, behi begi samur begi galduak. A tu abuela se le va la olla Asier juaj juaj ostia no te pases Iban. Ustu kaxoi ezkutuak: Intervid, Playboy: dena atera, arakatu, haztandu, usaindu. Aprobaziozko oihuak eta sugerentzia artistikoak. Eta Playamarnaboy gaixoa aldamenetik, aldameneko aulkitik, opil aurpegi zimurtu onbera, so, aldameneko gurpiltxodun aulkitik so, lerde apur bat ezpain ertzetik, so.

**Ion Garate**

BOUT1QUE DEL PAN
Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria
Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 u 943 74 33 92

Iriondo TABEIZNA
Astegunetan 7:OOetan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2• Tel: 943 74 00 15

## TXALOAK

• Ikastolako 4. mailakoak Xoxotera irteera antolatu zuten gurasoekin. Ikasle batzuk gurasoak txalotu nahi dituzte oso ongi pasa zutelako.

• Gizonezko batek Udala txalotu nahi du hilerriak azkenaldian daukan itxura onagatik: "Dena garbitu dute eta belarra ere moztu dute. Gainera, bi lurperatzaile daude eta biak ere unifortnatuta. Oso itxura ona ematen du honek".

## '4 11.111M



O Herritar batek honako idatzia helarazi digu BARRENera: "San Rokeko 18 eta 16 etxebizitza blokeetan, Kiroldegiaren ortdoan, lorategiak oso egoera kaskarrean daude. Egia esateko, ez dago ez lorerik ez eta apaintzeko ezer ere. Gezurra dirudi, Ieku honetan pasatzen den jende mordoarekin, inork lorerik edo zuhaitzik ez ipintzea. Bestalde, "textil hogar" pareko parkean ere, eskertzekoa izango litzateke, lehen bezala, kolunpioak edo zerbait jartzea".

KONST I TUZIOKO ZUE IA

MALLORCA
307 EURO 51. OBlpta
Bilbotik - charter hegaldiarekin.

L 1 SBOA
209 .75 EURO 34. 900pta.
Hotelean ostatua eta gosaria barne.

BENIDORM
113 . 59EURO 18. 900pta.
Pentsio osoa.

209 . 75 EURO 34. 900pta,
Irteera Eibartik.

TENERIFE
452 EURO 75. 20 epta
Irteera Bilbotik. Pentsio osoa.

218 . 17 EURO 36 300pta.
4 egunetarako lorfair-ak barne.

BAQUEIRA BERET
282 . 36 EURO 46 . 981pta,
Pentsio erdia.

th'ILBROEXPeEkS
BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA
Foruen enparantza, 3• Tel. 943 743 912






# El

# seme-a!a

**Aste hanefako erreportojean Elgoibarko ilcastetxeetan ikasten ari diren haur atzerritaritngan jarri dugu begiroda. Herriakle, ohitura eta ikastetze berrietara, eta batez ere euskaraz ikastera nokr moldaiu diren joldtea da gure asmoa. Oraingoz ez dira kasu asko henian, baina badaude banaka batzuk lose Luis eta Lina Linei Alfaro 10 eta 12 urteko anai-arreba kolonbiarrek, esaterako, San Bartolome Ikastolan buruiu zituzten ikasketak pasa den ikasturtean eta gaur egun Pilar Ikastetzean daude euren lehengusina Tationarekin batera. Familia honek Elgoibarren bizaa berri bat hasteko aukera izan du. Gero eta adopzio gehiago egiten diren garaian bizi gara eta gero eta emigrante gehiago ailegatzen dira gure arfera. Gauzak horrela, ikastebrocrk on:rin arte izan ez dituzten ikasle mota berri bati merezi duten irokaskuntza ematelro prestaiu beharko dira.**

> **"Gerrilak bahltu nlnduen eta erreskate erdia ordaindu genuen. Gere, segurtamagatik alde egin genrir**
> **Luis Ernesto Alfaro**



**Euskaldunak serioak, hotzak eta itxiak iruditzen zaizkiela aipatu digute,** "hegoamerikarrak alaiagoak eta irekiagoak gara, denagatik eta denekin katxondeoan ibiltzen gara beti. Hemengoekin harremanetan jartzea zaila da. Jendeak haserre balego moduan hitz egiten du batzutan, eta ezin zaiola inor hurbildu iruditzen zaigu. Beste batzuk, berriz, aurpegi txarrarekin begiratzen digute, arraroak bagina moduan. Dena den, konfidantza apur bat hartuz gero, jendea oso jatorra dela konturatzen zara. Izaera kontua da".

Luis Ernesto Alfaro eta Elsi Martinez senar-emazte kolonbiarrak dira, baina 99ko otsailetik Elgoibarren bizi dira Jose Luis eta Lina Linei, 10 eta 12 urteko seme-alabekin eta Elsiren amarekin batera. Familia honek momentu latzak pasa behar izan ditu Elgoibarrera iritsi aurretik.

## KOLONBIAKO SEGURTASUN FALTA

Alfarotarren historia film baterako gidoia egiteko modukoa da. Calikoak dira, Kolonbiako 3 hiri handienetako batekoak, alegia. "Kolonbian oso gustura bizi ginen eta ez zitzaigun ezer ere falta" azaldu digu Luis Ernestok, "13 urte neramatzan okindegi industrial baten lanean eta beste pertsona batek soldatapean gidatzen zuen taxi baten jabe nintzen. Semeak-alabak ere eskola on batera joaten ziren" gaineratu digu. Egun batez, ordea, bizimodua hankaz gora jarri zitzaion. "Jaiegun batean, arrantzara nindoala gerrillak bahitu ninduen. Erreskatea ordaindu ezean, hil egiten zaituzte. Guk, zati bat ordaindu eta bestea zorretan laga genuen. Kolonbian geratzea arriskutsuegia iruditu zitzaidan, ordea, eta familia babestearren alde egitea erabaki genuen".

> **"Kolonbian 13 urte neramatzan okindegi hatean lanean, eta ez zitzaigun ezer ere falta"**
> **Luis Ernesto**

## ENBAXADATIK ENBAXADARA

**Jaioterritik alde** egiteko arazo franko izan zituzten. "Bi anaia ditut errefuxiatu egoeran



*Lui,s Ernesto Alfaro,* *Martinez* ***Lina Linei, Elsi.*** ***arazoengatik Kolonbia laga eta 94ko otsailean*** *ailef*

Australian eta nik ere errefuxiatu eskaera egitea pentsatu nuen Venezuelako australiar enbaxadan. Enbaxadarekin tramiteetan hasi eta Txileko australiar enbaxadara bidali gintuzten. Hegoamerika guztia autobusez eta soinean genuenarekin bakarrik pasa ostean, Txileko mugan ez ziguten sartzen laga nahi. Mugako inspektorearekin hitz egin behar izan nuen eta nire arazoaren berri ematen zuten dokumentu eta paper guztiak erakutsi behar izan nizkion; errepublikako presidentearen eskutitza erakustea bakarrik falta izan zitzaidan. Gainera, ezin nuen nire arazoa edozeinen aurrean azaldu, komeni ez den norbaitek ezer entzuteko arriskua baitzegoen".

## AHAZTEKO MODUKO 6 HILABETE TXILEN

Txilen 6 hilabete pasa zituzten eta

# uonn rko berriak



7 *amak eta Jose Luisek segurtasun*
tee *ziren Elgoibarrera.*

## liegoamerika gultia autobusez eta soinean genuenarekin bakarrik pasa ostean, Ddleko mugan ez ziguten sartzen laga nahi"

**Luis Ernesto**

tarte horretan Kolonbian zeuzkaten ondasun guztiak saltzen saiatu zen Luis Ernesto. "Txilen gaizki pasa genuen, lanik gabe eta lo egiteko lekurik gabe, gure hasierako asmoa ez baitzen bertan geratzea, Australiara joatea baizik". Donostian bizi zen Elsiren lehengusina batek, kezkatuta, honuntza etortzeko esan zion Elsiri. Bera bakarrik etorri zen eta senarra eta semeak geroago ekarri zituen. Ondoren, Caritasen laguntza eskatu genuen. Donostiako aterpetxe batean 20 egun egin ostean, Elgoibar izeneko herri batera ekarriko gintuztela esan ziguten. Hasieran Udalaren etxe batean egon ginen bizitzen.

OSO GUSTURA ELGOIBARREN

"Elgoibarren oso ondo hartu gaituzte. Eskerrak eman nahi dizkiet Udalari, Lorea gizarte laguntzaileari, Oruesagasti eta Garate jaunei, Caritaseko Izaskuni, Gurutze Gorriko Milari eta Sartu-Langaiko Paki eta Yolandari. Baita Sty Fun Modeluak enpresan lana eman didan Joseri ere. Guztiek bizi berri bat hasteko aukera eman digute".

## "Hemen jendeak denetarik dauka eta, halla ere, triste bizi da"

**Elsi Martinez**



Elsik ganbarari pare bat buelta emateko moduko kritika bat ere laga zigun mahai gainean, "hemen jendeak denetarik dauka eta, hala ere, triste bizi da. Beste herrialde batzuetan, berriz, jendea gosez hiltzen da eta txabola sistrinetan bizi da, baina zoriontsuak dira. Atentzioa deitzen digu".



## "GePO eta hitz gehiago ulertzen ditut 3uskaraz, baina hizkuntza zaila da"

**Lina Linei Alfaro, ataha**



HE aurren heziketa izan da Alfarotarren kezka nagusienetako bat Elgoibarrera ailegatu zirenetik. Lehenik Ikastolan hasi ziren, bertan bakarrik baitzegoen lekua otsailean. "Pasa behar izan zuten guztiaren ondoren, zalantzekin eta beldur piska batekin hasi zuten ikasturtea, baina harrera oso ona izan zuten eta gustura sentitu ziren. Arazo bakarra euskararekin izan zuten", esan digute Lina Lineiren eta Jose Luisen gurasoek. "Klase askotan partaideak izan beharrean, ikusle soilak zirela konturatu ginen. Zuzendariarekin hitz egin eta ikasgai gehiago gazteleraz izatea ondo etorriko zitzaiela erabaki genuen. Beraz, Pilar Ikastetxera aldatu genituen. Oraindik ere euskararekin dituzte arazo gehien, baina oso ondo moldatzen ari dira".

## "kolonbiako mutilak edukatuagoak dira, hemengoak, berriz, agresiboagoak, batez ere neskekin"

Linak berak euskara dela zailena baieztatu digu, "gero eta hitz gehiago ulertzen ditut euskaraz, baina hizkuntza zaila da". Ez dela lotsatia eta lagun berriak egiteko arazorik ez duela izan aipatu digu, baina haur kolonbiar eta elgoibartarren artean ezberdintasun bat ikusten du, "kolonbiako mutilak edukatuagoak dira, hemengoak, berriz, agresiboagoak, batez ere neskekin". Matematikak eta plastika dituela irakasgai gustukoenak gaineratu digu.

2001-XI-9

## Elgoibarko auzoek izen berriak izango dituzte aurrerantlean

# ELGOIBARTARROK ERABIUKO AL DITUGU AUZOETAKO IZEN BERRIAK URTE BATZUK BARRU?



### ANTONIO EUGI

**78 urte, jubilatua**

Nik baietz uste dot, izen berri danak ez ditxut ezautzen, baina Sallobentena behintzat badakitx. Danen gustua igual ez da izango, baina neri ondo iruditzen jata berezko izenak mantentzia.

### LUIS ARTETXE

**72 urte, jubilatua**

Ezta pentsau ere, oso zaila izango da jendia izen berrixetara ohitzia. 72 urte daukadaz eta San Migel bailekua naiz, eta ez naban San Migelen lehengo izenik ezautzen.





### FLORI ORTIZ DE VILLALBA

**59 urte, etxekoandrea**

Norberak ikusiko du erabili ala ez. Oso ongi iruditzen zait aintzinako izen euskaldunak jartzea eta uste dut erraz ohituko nintzatekeela.

### PAQUI ROMERO

**35 urte, ikaslea**

Denborarekin erabiliko dira, nahiz eta hasieran piska bat kostatu. Izen zaharrak berreskuratzea gauza polita da.





### SEBERI ARANGUREN

**75 urte, etxekoandrea**

Guri kostauko jaku izen berrixetara ohitzia. Oin artekuekin segiduko dou, baina aldatzia pentsau badabe eukiko dabe motiboren bat.

### JON MUNIN

**16 urte, ikaslea**

Ez dot uste jendia izen berrixetara ohitxuko danik. Nik oin arteko izenekin ezautu ditxut auzuak eta ez dau merezi aldatzia.





***ESKERTZA***

*2001eko azaroaren lean, 91 urte zituela hil zen* ***PAKITA ONDARRE MUGERZA*** *ren sendiak (Sebastian Uriberen alarguna), bihotzez* ***ESKERTZEN*** *ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

# URRIA•URRIA

**Miren Ione Arriola Gabilondo**
**0:9 Antonio LeOn Navarro**
**Urriaren 6an**

**Maria del Mar Cebrial Fuente**
**Luis Maria Garda Gandia**
**Urriaren 13an**

**Vanesa Rozas Oliveira**
**Q:9 Federico Josu Aseginolaza Larrarte**
**Urriaren 27an**

## H1LDAKOAK

**Maria-Lucia Azkarreta Etxeberria**
**90 urte zituela**
**2001eko** urriaren 8an hil zen

**Angelita Bernedo**
**73 urte zituela**
**2001eko urriaren 14an hil zen**

**Aurelio Galarraga (Altzola)**
**71 urte zituela**
**2001eko** urriaren 16an hil zen

**Miguel Zubizarreta Astigarraga**
**75 urte zituela**
**2001eko urriaren 25ean hil zen**

## JAHM41101111



**Aida Molina Rolo**
Juan Molina QD Maria del Carmen Rolo
**Urriaren 6an**



**Markel Cid Lizundia**
**Florencio** Cid QD Maider Lizundia
**Urriaren** 15ean



**Nahia Legorburu Goñi**
Iñigo **Legorburu (!:» Miren ltziar Goñi**
**Urriaren 20an**

**Atal honetan zuen** seme alaba jaioberriaren erretratua jani nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira, **943 74 41 12** telefonora, edo pasa Nafarroa plazan daukagun lokaletik.


# ETXEBERRIA

**rfileta zerbitzua**
OSOA eta 24 ORDUKOA,

*KUTXAK TRASLADOAK .KOROAK*



NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

# Irruzunoko etxebizitza sozialen zozketa Udalean daude ikusgai azaroaren 30era arte

## Erreklamazioak aurkeztu ostean, zozketa urtarrilean egiteko asmoa dago

Urruzunoko etxebizitza sozialen eraikuntza lanak aurrera doaz, eta milatik gora izan dira etxe hauek eskuratzeko -egin diren eskariak. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak apirilean, izena emateko garaia amaitu ostean, 1.543 eskari jaso zituen, eta horietatik 626 izan dira onartuak.



*Orain eraikitzen ari diren bi etxebizitza blokeak alokairuan jarriko dituzte. Gero egingo dituzten 120 etxebizitzak, berriz , salgai.*

Erreklamazioak

Onartutakoen zerrenda udaletxean dago jendaurrean jarrita urriaren 30az geroztik. Azaroaren 30era bitartean egongo da bertan, eta onartuak izan ez direnek, abenduaren lera arteko epea izango dute "Etxebiden" errekurtsoa aurkezteko. Orain eraikitzen ari diren bi etxebizitza blokeak alokairuan jarriko dituzte, eta ondoren egingo dituzten 120 etxebizitzak, berriz, salgai. Etxea erosteko asmoa azaldu dutenak 1.281 izan dira, eta alokairurako eskaria aurkeztu dutenak, aldiz, 262.

Eskaria egin dutenek, beraz, Udalera jo dezakete beraien izenak onartutakoen zerrendan agertzen diren edo ez ikustera. Hala bada, gero zozketaren zain egon beharko dira, eta onartuak izan ez badira, errekurtsoa egin. Ondoren egingo dute etxebizitzen zozketa. Hasieran abendurako iragarrita bazegoen ere, baliteke urtarrilera arte atzeratzea. Oraindik ez dute data zehatzik ipini.

# San Pedrora joateko bidea berria egiteko lurren desjabelza onartu du Udalak

## Baserritarrek bidea pribatua dela eta trafikoak kalteak eragingo dizkiela salatu dute

pintza baserritik San Pedrora joateko bidea gingo dute. Horretarako, hainbat jaberi lurrak kenduko dizkiete. Hori onartu zen azken plenoan EAJ-PNV, EA, PSE-EE eta PPren baiezko botoekin. Batasunak ezetz esan zion proposamenari, bere esanetan, "proiektuari buruzko informazio falta nabarmena izan da, eta lurrak kenduko dizkioten baserritar batek aurkeztutako alegazioek ere ez dute erantzunik jaso". "Bideak %20ko aldapak izango ditu eta Foru Aldundiak %16an jartzen du muga mota honetako bideetarako. Horrelako bideetan oso zaila da euria egiten duen egunetan ibiltzea; gainera, badaude San Pedrorako bidea egiteko beste aukera batzuk".



*Baserrietako bizilagunek ezadostasuna azaldu arren, Udalbatzak gehiengoz onartu zuen lurren desjabetza.*

Baserritarren alegazioak

Udaleko idazkariak txosten bat idatzi du emandako pausoak legalak direla adieraziz. Era berean Aitzbizkar Behekoa baserriko bizilagunek aurkeztutako idatzia bidali digu Udaletik. Bertan bidea pribatua dela azaltzen dute. Egi, Akei, Sagarzurieta, Aitzbizkar Goikoa eta Aitzbizkar Behekoa baserrietako bizilagunek eraikia eta zaindua. Bidea publiko bihurtuz gero, trafikoa gehitzeak kalteak eragingo lituzkeela diote.

Udalbatzak gehiengoz onartu du lurren desjabetza, eta baimenak jaso bezain pronto lanekin hasteko asmoa dutela esan digute Udalean.

## 1MHko Ingeniaritzako 3. promozioko 24 ikaslek jaso dute ikasketa amaierako diploma

Urriaren 26an IMHko ingeniaritzako 3. promozioko ikasleen diploma banaketa egin zen. Aurten Frantziako Hezkuntza Ministerioak estreinakoz ofizialki baimendu ditu IMHko ingeniaritza ikasketak. Ikasketak amaitu dituzten 3. promozioko 24 ikasleak jada lan munduan integratuta daude, Txandakako Ingeniaritzako Iehen urtetik hasten baitira lanean egun erdiz. Hauetatik, %73k ingeniari lanetan dihardute eta %14k giza taldeak gestionatzen dituzte. Ekitaldian besteak beste, Gillenno Garate Alkatea, Jacques Bahry, Frantziako CESI-Ingeniaritzako Goi-Mailako Ikasketa Zentroko Zuzendaria eta Xabier Ortueta AFMko ordezkaria izan ziren.



## Jendea behar da Kontseiluak antolatu duen diru-kanpainan laguntzeko

"Azken pezetak eta liberak, eta lehen euroak euskararen alde" kanpaina antolatu du Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak. Helburua Kontseiluaren egitasmoak finantzatzeko dirua biltzea da. Horretarako, Elgoibarren 100 itsulapiko jarriko dituzte denda eta tabernetan, abendutik otsailera bitartean, herritarrok azken pezetak eta lehen euroak bertan sartzeko. Elgoibarren kanpaina aurrera ateratzeko batzorde bat antolatu nahi dute eta parte hartu nahi izanez gero, azaroaren 16a baino lehen honako telefono hauetara dei dezakezue: 943 74 13 32 (AEK euskaltegia), 943 74 27 31 (Udal Euskaltegia) eta 943 74 16 26 (Elgoibarko Izarra).

## Ingurugiroa babesteko ahaleginarengatik Ekoscan ziurtagiria jaso du Elgoibarko Institutuak

Elgoibarko Institutuak Ekoscan saria jaso du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolakuntza eta Ingurugiro Sailaren eskutik. Ingurugirugiroari kalte gutxiago egiteko eta energia aurrezteko ahalegina egin duten enpresen lana eskertu nahi izan dute. Institutuko Ingurugiro saileko irakasleen esanetan, "gurea enpresa bat da. Ikasleak eta irakasieak gaude, fisika, kimika eta mikrobiologiako analisiak egiten diren laborategiak ditugu, eta baita automozio, karrozeria.., tailerrak ere. Hondakinak sortzen ditugu, gutxi baina mota askotakoak". Proiektu honekin ikasle eta irakasleak arlo honetan hezi nahi dituzte.





## Hiru kontzentrazio egin dira aste honetan Jose Maria Lidon magistratuaren hilketa salatteko

Joan den asteartean, hilaren 7an, 15 minutuko kontzentrazio isila egin zen Plaza Handian. Kale agerraldiaren helburua Getxon tiroz hil zuten Jose Maria Lidon magistratuaren aurkako atentatua salatzea eta familiakoei dolumina azaltzea izan zen. Bide batez hilaren 6an Madrilen bonba autoz egindako atentatuaren aurka ere protesta egin zuten. Plazan elkartutako jendea 15 minutuz isiltasunean egon ondoren, txaloka amaitu zuten kontzentrazioa. Jose Mari Oruesagastik egun berean iluntzeko 20:00etan eta hilaren 8an eguerdiko 12:00etan berriz kontzentratzeko deia luzatu zien herritarrei.

## ESKOLARTEKO KIRCLAN

**AGENDA**
Urriak 27, 2. Jardunaldia

**SASKIBALOIA, Herri Eskalan**

■ **Benjaminak** ■
**9:00** Ikastola **D-** Herri Eskola **A**
**9:45** Pilar B- Pilar **D**
**10:15** Ikastola B- Mendaro **A**
**11:15** Pilar C- Herri Eskola **B**
**12:00** Ikastola C- Ikastola **A**

**FUTBOL 7, Mintxetan**

■ Alebin mutilak •
10:00 Herri Eskola **A-** Ikastola C
10:00 Pilar **B-** Ikastola B
11:00 Pilar A Ikastola **A**
**12:00** Ikastola -Herri Eskola B
■ Alehin neskak ■
11:00 Pilar **B-** Ikastola **A**
**12:00** Ikastola B- Pilar A

**ESKUBALOIA, ikastolan**

■ Infantil mutilak ■
10:15 Ikastola C- Pilar A
11:30 Ikastola B- Insti A
12:00 Ikastola **A-** Insti **B**
■ **Infardil neskak**
**9:00-** Pilar B- Insti **A**
9:45 Pilar A- Ikastola B

**DAVID ANGULO**

# 6 urteko Jacques Cousteau txikia

• Sei urte besterik ez dituen arren, David Angulo buz5atzailea gustuko duen elgoibartarra da. "A babor" eta " a estribor", eskuma eta ezkerra esaten baino lehenago ikasi dituen itsasgizon txikia da.

• Arrainen artean igeri egitea hiru urte zituenetik gustatzen zaiola esan digu Jeronimok, bere aitak, baina 5 urte bete arte itxaron behar izan zuen. Aitak Davidentzat bereziki prestatutako urpekaritza ekipoa lortu arte, hain zuzen ere. "Tamaina txikiko oxigeno botila bat aurkitu nuen kasualitatez eta Daviden tamainara egokitutako neopreno trajea, betaurrekoak, erreguladorea, manornetroa..."

• Lau urterekin ikasi zuen igeri egiten, gainontzeko haurrek baino zertxobait beranduago. Hiru urte zituenean portuan zebiltzan urpekari batzuri begira zegoela bere burua uretara bota zuen.



**"A babor eta "a estrihor", eskuma eta ezkerra esaten baino lehenago ikasi dituen itsasgizon txikia da David Angulo**

Esperientzia haren ondorioz, urari ikaragarrizko beldurra hartu zion, baina baita azkar ahaztu ere.

• Oraindik ez dago urpekaritzan aritzeko adin mugarik ez.arrita, "hori dela-eta, kontu handiarekin aritzen gara, Sakonera gutxiko uretan, gehienez 8 metrotara jaitsiz eta oso denbora laburrean aritzen gara".

• Arrainen izenak bereizten ere badakiela esan digu Davidek, baita urpekarien hizkuntza menderatuta duela ere. Urpean balego moduan ur azpian komunikatzeko erabiltzen diren zeinuen erakustaldia egin zigun elkarrizketa hau egin genuenean.

• Itsasuntzitik bakarrik ikusi dituen arren, izurdeak eta olagarroak dira gustukoen dituen arrainak, "atseginenak dira, beste arrainek, berriz, ukitzen saiatu orduko alde egiten dute".

• Bitxikeria gisa, urazpiko mundua ez dela guztiz ixila azaldu digu Jeronimok, "zaratak primeran entzuten dira, soinua azkarrago hedatzen baita uretan, baina ez da jakiten nondik datorren, bi belarrietara une berean iristen baita soinua uretan".

1.17¹L.175:

**OMEEK1N EuGNARAz JoLASTu ETA KANTATu NAH1 DuTEN GuzTiEi zuzENDuTAKO IKAGTARDA t GuRAso, umEzAiN,**

linI2

- Astelehen eta asteazkenetan **1 9:00etatik** 20:30era, azaroaren 19an hasita; **edo asteazken eta ostiraletan** 1 4:30etik 1 6:00etara, **azaroaren 21 ean hasita.**

- T2 orduko ikastaroa izango da, ordu eta erdiko **8 saio** praktikorekin.

INUN Kultur etxeko sotoan.

PRE211711 5.000 pta.

**12EtIR EMPITEhn EPER**

- Azaroaren 14a, asteazkena, baino lehen.



plumnip~% arigera limmamb ameadh~

Heicluen euskalduntte-alfabetatlea susperIzeko protektua

ARIGERA **Ubitarte 4, behea Tei. 943 741 626**

2001.o azaroa/IX urtea/382 zk.a

# BARREN

ASTEKARIA

## elkarrizketa



183.!.

BARATZE
Baserri eskola

r EZ DIRA ASKO KALETIK BASERRIRA BIZI IZATERA¨1 JOATEN DIRENAK. BASERRIAN HAZI, KALERA JAITSI ETA URTE ASKOAN TAILERREAN LANEAN EMAN OSTEAN, BASERRIRA BUELTATUTAKOAK ERE GUTXI DIRA. BIGARREN KASU HAU DA MANUEL SALEGIRENA. AZKEN HAMAR URTEAK BARATZE BASERRI ESKOLAN EMAN BAITITU. ABENDUAN DA ERRETIROA HARTZEKOA, ETA BERE ASTEKO EGUN LIBREAN DENBORA PISKA BAT ETA BASERRIAREN INGURUKO HAINBAT GOGOETA LAPURTU DIZKIOGU.

# Manuel Salep

P AZ LAGAK DUB ARR A BA NA AILEGAU DA ETXERA BUELTATZEKO ORDUA

## Manuel Salegi

# "Goreutzantitzat, kalia bai

***ITZIARREN JA10 ZEN, ITSASPE AUZOKO UZARRAGA HAUNDI BASERRIAN. HAMABI URTERA ARTE IKASTEN ARITU ETA 16 URTEREKIN TAILERREAN LANEAN HASI ARTEAN BASERRIKO LANETAN JARDUNDAKOA DA. BASERRITIK KANPO LANTOKI ASKO EZAGUTU DITU MANUEL SALEGIK, BAINA AHUNTZAK BETI LARRERA JO OHI DUELA DIO ESAERAK, ETA MANUELEK ERE BASERRIRA EGIN ZUEN BUELTA. ARTEAGA (BIZKAIA) INGURUAN DAGOEN BARATZE BASERRI ESKOLAN MANTENIMENDU LANETAN ARITZEN DA. EMAZTEAK, AMELIAK, ERE BERTAN EGITEN DU LAN, GARBIKETAN. EGUBERRI EGUNEAN BETEKO DITU 65 URTE ETA JUBILAZIOA HAIN GERTU DUEN HONETAN BERE LANARI BURUZ HITZ EGITEKO ESKATU DIOGU.***



**Baserriko lanaren aurretik beste lantoki asko ezagutu dituzu, ezta?**

Eibarren, Gasteizen eta urte askuan Elgoibarren ein dot lan. San Pedron ein naban azkenengo lana, tailarra itxi zan eta tenporada haretan lan gitxi zauanez, ez nintzan fabriketan bila ibili. Oñatin txalet bat zaintzeko Ian bat urten jakun, baina ez ginan arreglau. Gero etorri zan Baratzeko aukeria eta ointxe kunplitzen dia hamar urte emaztia eta bixok hara jun ginala.

**Zer da Baratze?**

Umiek baserriko lana ikasteko tokixa da. Baratzian eitxen dabe lana, aitzurrian ere ikasten dabe, eta animalixen gorabeherak ere. Gero tailer diferentiak daoz: eskulanak eitxeko, arotzerixan ikasteko, perretxiko eta lorena, erlezaintzakua... Gehixenak 3 egunetarako etortzen dia eta udan 10 eguneko udalekuak eoten dia.



**"UME BATZUK EZ DAKIXE ESNIA NUNIRK URTETZB1 DAN ERE, KAJETAKUA BAKARRIK DALA USTE DABE"**

**Umeak zein gauzarekin harritzen dira Baratzera joandakoan?**

Gehixenak Bilbo aldetik juten dia, eta batzuk ez dakixe esnia nundik urtetzen dan ere. Esnia kajetakua bakarrik dala uste dabe. Behixak esnia ematen dabala ikusitxa, sorprendidu eitxen dia. Antzarreri ere eskutik ematen diue jaten eta piskat bildurtzen dia.

**Zer aurkitu duzu Baratzen?**

Fabrikan barruan Ian eitxen da, eta han atetik urten orduko kanpoko haizia hartzia, hobia da. Toki pribilejiau baten gaude, karninorik ez dao traban umientzat. Gorputzantzat kalia baino hobia da. Hemen seme-alabak, bilobak, lagunak... laga genitxuan, baina oin bueltan gatoz eta eukiko dou berriz danekin eoteko denboria.

# o hobia da basarrixa"





**Zein da zure eginbeharra bertan?**

Mantenimientua da nere lana, etxekua eta ganauena. Mangerak eta tuberixak arreglatzen ditxut eta baitxa umien desarregluak ere. Negurako egurra txikitzen dot: baserri haundixan bi tximinixa daoz eta kalefaziva badauan arren etxia berotzeko ondo etortzen da beheko sua. Amelia, nere emaztia, etxia garbitziaz arduratzen da.

**I Aurrez nekazal giroa ezagutzen al zenuen?**

Bai, 12 urtekin Deban eskolak amaitxu eta 16 urtekin fabrikan hasi arte baserrixan eon nintzan. Orduan ikasi nitxuan baserriko gauzak, eta oin han oso ondo moldatzen naiz. Hara jun nintzanian bixetatik nakixan, baserriko lanetik eta baitxa kalekotik ere. Hazixa zein denboretan bota bihar zan lehendik erdizka nakixan, eta han liburuetatik eta inguruko baserritxarreri galdetuta ikasten jun naiz.

**Baratze umeentzako lekna da. Nola moldatzen zarete haurrekin?**

Gu ez gera asko ibiltzen eurekin, baina ondo konpontzen gera. 3 egun gutxi dia, baina udan eoten dianekin batez ere etxeko bezela

**uMANTEMMIENTUA DA NERE LANA, ETKEKUA ETA GANAUENA. MANGERAK ETA TUBERDIAK ARREGIATIEN DITXUT ETA BAITXA UMIEN DESARREGLUAK ERP'**



BARATZE
Barorr eskold

eitxen gera. Umiak beti gustau izan jakuz gainera.

**Eta inguruko baserritarrekin?**

Hasieran konfiantzia hartu arte gaizki pasau genduan, baina gero bueltako baserrixetako lagunak ein ditxugu, eta oso ondo pasatzen dou. Emakumiek astian behin merienda bat eitxen dabe. Ni zapatun baten mus kanpeonatoren batera juten naiz.

**I Nekazaritzako baserriak galtzorian daudela diote. Gazteek lanbide honi jarraituko al diote?**

Ez dakitx, baina, txikixek baserriko lana eitxia eta ikastia nahi dabe, txikitxatik toki hauetan egotia alde haundixa da, bestela ez dabe baserrixa ezautzen. Han eon eta gero badakixe zela hazixa bota bihar dan, gero aldatu...

**Laster jubilatuko zarete. Zertarako aprobetxatuko duzue denbora?**

Edade honetara heldu ezkero piskat kaskauta eoten da bat lanerako. Penaz lagako dou, baina ailegau da etxera bueltatzeko ordua.

**Baratzen momentu gogoangarri asko pasako zenituzten, ezta?**

Badia umiak gurekin asko akordatzen dianak eta Gabonetan-eta kartak idazten dizkigutenak. Animalixekin ere euki ditxugu rekuerdo politxak: Sorgintxo izeneko behi bat Durangoko mataderora eruan naban, eta beste behi danen artian lagata banixela "agur, sorgintxo" esan nionian marruka hasi zan abotsa ezaututa, eta hori bihotzian geratu jata.

# atzera begira

## pausoz pauso



Atzera begira pausoz-pauso

- Itziarren jaio zen 1936ko Eguberri Egunez Itsaspe auzoko Uzarraga Haundi baserrian.

- 12 urtera arte Deban egin zituen ikasketak eta ondoren, baserrian aritu zen 16 urte bete arte.

- Eibarren egin zuen lan soldadutza egitera Gasteizera joan zen arte. Bertan ezagutu zuen orain bere emazte den Amelia, eta han hasi zen BH bizikleta fabrikan lanean.

- Hiru urteren ostean, Elgoibarrera etorri zen lanera eta hainbat lantoki pasatu ditu hemen: Elgon hasi, Goitin segi eta San Pedron amaitu zuen.

- Kirolzalea izan da beti Manuel. Orain dela 10 urtera arte, behin edadean aurrera joanda, inguruko saltakako probetan parte hartutakoa da.

- Baratze baserri eskolan mantenimendu lanetan eman ditu azken 10 urteak. Gabonetan jubilatuko da.

- Hona bueltan etorri eta paseatzeko, zein lagunekin mendian ibiltzeko aprobetxatuko du denbora.

## besteen ahotan

**Juan Mari Egurenek,** bizilagun ez ezik adiskide ere baditu Manuel eta bere emazte Amelia. Beraiei buruz hitz batzuk egiteko eskatu diogunean, senar-emazte hauentzat Baratzera joatea hasieran gogorra izan zela aipatu digu : "Manuel burdin lanian ibiltzetik nekazaritzara pasau zan, baina baserriko semia izancla ez jakon hain zaila ein, gogorraua bere emaztiantzako izan zan".



Euskaldun petoak, kristau sinismen handikoak eta familla girokoak direla ere gaineratu digu: "Familixia hazitxa jun zian Baratzera, baina beti euki dabe seme-alabekin oso lotura estua".

Bikotearen alaitasuna azpimarratu nahi izan digu Juan Marik: "Arranke haundikouak dia dia eta dana emanaz edozeini laguntzeko beti prest daozenak". Laster jubilatu arren geldirik egoten lanak izango omen ditu Manuelek Egurenen ustez: "Oso bizixa da eta gainera ehiztari eta muslari itsu-itsua, beraz, kostauko jako erretirua hartutakuan ezer ein gabe egoten".

# infornriazioa

## Eusko —TR— 16 EuskoTren VITOBI S

DONOSTIA-BILBO
Egunero
DOn{rilia WAR; 5.15 .06.45.. 20 15
ElgDibar 07.02 08.02.. 22 (72
piegunetan 7 rican Itamko dira

BEIBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 20.00
Elgaihar 07.23 08.23. . 21.23
• jaiegunetan k 00etan ha.sikc) tltra

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

EIGOIBAR-MENDARO
Astegutietan
Elgoibar 07.25 U8.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Eigoarar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## PES.AUTOBUSAK

LARUNBAT GAUA

| EIBAR-ONDARROA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | (7-i.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00,40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00 50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 04 55 | 06.55 |
| Ondamia | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

| ONDARROA-EIBAR | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23,40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

*Autobusetako infonnazioa lortzeko deitu Eibarko infortnazio bulegora. TeL 902 101 210.*

## Farmaz:,._ - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 10 | Yudego | Yudego |
| | Yudego | Yudego |
| 12 | Zabaleta | Zabaeta |
| 13 | Etxeberria | Etxeberria |
| | (Errosario kolean) | |
| 14 | Escala | Escala |
| 15 | Bidasolo | Bidasolo |
| 16 | Escala | Escala |
| 17 | Etxeberria* | Fernandez |
| | (Errosurio koloonj | |

FARMAZIAK
ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparaniza 4, Garogarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kaleban-en, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
*eguerdiko 2ak arte

OKINDEGIA
11 igandea Idarraga

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

Anbulatonoa ............ 943 03 26 10
Planning-a ............ 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak ............ 943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia) ............ 943 46 46 22
Gurutze Gorna ............ 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea ............ 943 03 28 00
Odol Emaileak ............ 943 74 39 36

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. ............ 902 54 32 10
PESA (Eibar) ............ 902 10 12 10
Taxi geltokia ............ 943 74 08 98

**UDALA**

Euskara Zerbitzua ............ 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua ............ 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ............ 943 74 21 58
Mendaroko Bdala ............ 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua ............ 943 74 10 08
Udaletxea ............ 943 74 10 50
Udaltzaingoa ............ 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ............ 943 74 16 26
Kiroldegia ............ 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ............ 943 74 30 88
Liburutegia ............ 943 74 35 25
Musika Eskola ............ 943 74 21 45
Mintxeta ............ 943 74 43 15
Parrokia ............ 943 74 08 42
Postetxea ............ 943 74 15 47
Gaztetxea ............ 943 74 35 72

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza ............ 943 74 02 96
Zaharren Biltokia ............ 943 74 05 26
Eguneko Zentroa ............ 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola ............ 943 74 21 41
HHI (EPA) ............ 943 74 OB 80
Herri Eskola ............ 943 74 08 79
I.M.H. ............ 943 74 41 32
Institutua
Arreitu rre ............ 943 74 80 19
Ezenarro (Nteka) ............ 943 74 80 19
I kastola ............ 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea ............ 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN ............ 943 74 41 12
El Diario Vasco ............ 943 74 40 73
El Correo Espariol ............ 943 74 10 82
Zazpiki irratia ............ 943 74 34 74
Egunkaria ............ 943 30 02 22
Gara ............ 943 31 69 99


**CHERKI** IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
`t 943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea • **20600 EIBAR**



**URKIDI** AHOLKULARITZA
**KONTABILITATE**
**LAN**
**FISKAL**
Kalamua, 12 . ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
,THE 1 LIARTFORD ASEGURUAK

# "Mari sorgin" eta "Underground" antzerki lanak ikusteko aukera izango da gaur, barixakua

## Markeliñe taldeak "kartoi biraka" lana ere eskainiko du domekan, azaroaren 1 1 n, arratsaldeko 1 6:30ean

Asteburuan zer egin pentsatzen zaudetenok, badituzue Elgoibarren, kultura aldetik, gozatzeko hainbat aukera. Gaur, barixakua, Taupada antzerki taldeak "Mari Sorgin" lana eskainiko du udaletxeko arkupeetan, arratsaldeko 18 :00etan. Txo txongiloen bitartez, ametsen mundura eramango gaitu lan honek. Sorgin gaizto baten menpean dagoen dama baten gorabeherak kontatuko dituzte.

Gaueko 22:15ean, musika bihurtuko da protagonista Herriko Antzokian, Markeliñe antzerki taldearekin. "Underground" lana eskainiko dute. Hiru musikariri metroan gertatutakoak azalduko dituzte batere testurik gabe, doinuen efektuekin soilik. Sarrerak 800 pta. balio ditu.




*Taupada taldearena da "Mari Sorgin" eta "Kartoi biraka" , berriz, Markeliñe antzerki taldearena.*

**"Mari Sorgin" udaletxeko arkupetan izango da arratsaldeko 18:00etan eta beste biak, Herriko Antiokian**

### Kartoi biraka

Domekan, Markeliñe taldea izango dugu berriz ere Herriko Antzokian. Arratsaldeko 16:30ean "Kartoi biraka" lana eskainiko dute Adin guztietako pertsonentzat pentsatuta dago, ez txikitxoentzat bakarrik. Biltegi batean, kutxekin zenbat gauza egin daitezkeen erakutsiko digute Markeliñe taldeko hiru kidek. Munduari 80 kaxetan bira emango diote eta musikaren laguntzarekin munduko hainbat leku identifikatuko dituzte.

# "Bestelako zinean-ren B. etapa hasiko du Ongarrik azaroaren 15ean

## Dagoeneko azaroko hiru emanaldiak zehaztuta dituzte



Ongarri Zine klubak "Bestelako Zinea"-ren 8. etapari hasiera emango dio datorren eguenean, hilaren 15ean. **Ohi** bezala, emanaldiak gaueko 21:30ean hasiko dira, Heniko Antzokian.

Dagoeneko zehaztuta daude hilabete honetako emanaldiak: "Amores perros", "Nueve reinas" eta "El Cfrculo" izango dira, azaroaren 15, 22 eta 29an, hain zuzen ere. Alejandro G6mezen "Amores perros" tilma mexikarrak atzerritar onenaren "Oscar" sarietarako nominazioa jaso zuen iaz. "Nueve Reinas", Argentinan egindako intrigazko filma da. 7 "COndor" sari jaso ditu, Espainiako "Goya" sarien parekoak **dira.** Hinigarrenak, lrango "El circulo" pelikulak, "Urrezko lehoia" saria jaso zuen iaz Venecian, Donostiako zinemaldia inauguratu zuen eta baita nazioarteko kritikaren saria jaso ere. Teherango emakume talde baten bizipenak kontatzen dira. Haizea emakume taldearen eskutik ikusi ahal izango da pelikula hau.

### Azarako pelikulak

| | |
|---|---|
| Azaroak 15 | "Amores perros" |
| Azaroak 22 | "Nueve **reinas**" |
| Azaroak 29 | "El **dreulo**" |




## Koldo Lizarralde, ethografoa

# "Errotak eraoiltzeko sortu ziren eta berriro martxanlarri oeharkogenituz(ell

*Koldo lizarraide Elberdin Pasai San Pedron jaio zen baina 1981. urteaz geroztik, Elgoibarren bizi da. Etnografia lan ugari ditu, 14 lan egin baititu guztira. Azkena, Elgoibarko jaietan aurkeztu zuen, "Elgoibar eta bere errotak" izenburupean. 10 urte pasatu ditu Koldok erroten aztarnak jasotzen. liziar Urteaga mendarotarrak euskarara lana itzuli du.*

- **Zer da etnografo bat?**

Herri bateko bizipenak eta ohiturak jasotzen ditu etnografiak. Eguneroko bizimodutik hasita: janzteko era, jolasteko, jateko edo mahaian izaten ditugun portaeren azterketa.. Herriko gida baten modukoa da, pertsonen bizipenekin eginda.

**"Gaur egun, 24 errota bakarrik daude martxan Gipuzkoan. 1980. urtean 87 zeuden"**

- **Azkeneko lana, errotena, alegia, ez da historialari baten lana?**

Bai, pertsoneki n harremanetan jarri eta hainbat elkarrizketa egin ondoren ateratako lana bada ere, artxiboko lan asko dago. Alde horretatik begiratuta historiagile lan piska bat egin dudala esan daiteke.

- **Denbora asko eraman al dizu lan hau osatzeak?**

10 urte behar izan ditut guztia borobiltzeko. Gero, tartean, beste arazo bat ere izan nuen: ordenagai]uko birus batengatik, 6 hilabetetako lana pikutara joan zitzaidan eta hainbat ikerketa lan eta rebisio berriro egin behar izan nituen.

- **Zergatik egon dira hainbeste errota Elgoibarren?**

Errekarengatik, ur asko dagoelako eta industria lekua zelako. Burdinola ugari zegoen eta industria horren inguruan errotak zeuden, jendeari jaten emateko. Gaur egun, aztarnak geratzen dira: Gelatxo, Aldama... baina gehiagorik ez.

- **Erretratuak ere agertzen dira liburuan. Jende askoren laguntza izan al duzu lana ilustratzerakoan?**

Bai, gehienak neuk atera ditut eta herriko jendeak ere asko lagundu dit, Felix Berguak, adibidez. Honen harira, 4. argazkian akatsa ere egin genuen: Sigmako zubia dela ipintzen du, baina Madalakoa da.

- **Nori zuzenduta dago liburua?**

Elgoibarko herriari bereziki. Hala ere, liburua argitaratu ondoren, Galiziatik, Madrildik edo Granadatik deitu didate Iiburuaren eske. Errotak ikertzen dabilen jendea izan da liburua eskatu didana, batik bat.

- **Errotak historiara pasatu direla uste al duzu?**

Ez, errotak erabiltzeko sortu ziren eta nire ustez, oraindik ere martxan jarri daitezke.

- **Nola berpiztu ditzakegu errotak?**

Ni errotak berpizteko borrokan nabil. Ez da bidezkoa, errotetan lan egiten duen jendeari zergak kobratzea. Alderantziz, dirulaguntzak ematea lortu behar da. Foru Aldundiak Gipuzkoan errota bakoitzari milioi bat emanez gero, 24 milioi besterik ez lirateke izango. Orain 24 errota daude martxan, 1980an, 87 zeuden.

- **Eskuartean proiektu berririk ba al duzu?**

Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren barruan nago lanean eta Euskal Herriko 70 herrialdetan inkestak egiten ari gera. Gero, erroten aldeko borroka horretan, nazioarteko kongresuetan ere egon naiz.

2001-XI-9

# 2001-2002 eskubaloi denboraidiE

## Sanlo Eskubaloi Klubeko nesken taldeen aurkezpena

### 511/13 ELGOIBAR (Senjor neskald



**Goiko ilaran, ezkerretik eskumara:**
Ariane Peñaranda, Maialen Bergara, Erika Etxabe, Lorea Gabilondo, Ibana Loiola, Sandra Vasquez, Miriam Beitia eta Pablo Aranzeta (entrenatzailea).

**Makurtuta, ezkerretik eskumara:**

Ane Garmendia, Lur Eizagirre, Estitxu Astigarraga, Izaskun Sarriugarte, Leire Agirreberia, Amaia Jauregi eta Alazne Urbieta.

**Argazkian falta da:** Irma Aldazabal.

### UNCETA ELGOIBAR Oubenil neskak)



**Goiko ilaran, ezkerretik eskumara:**
Ales Arrieta (entrenatzailea), Estitxu Perea, Iraia Silva, Maite Uriarte, Nere Aranberri, Guruzne Urkidi, Amaia Otero eta Aitzol Garmendia (entrenatzailea).
**Makurtuta, ezkerretik eskumara:**
Edurne Juaristi, Amaia Polo, Maria Bilbatua, Ainara Ladron, Itziar Leiaristi, Begoña Merino eta Eire Viia.

**Argazkian falta dira:**
Ainhoa Gonzalez, Itziar Gerrikabeitia eta Maite Arenal.

### PAGOAGA ELGOIBAR (Kadete neskal0



**Goiko ilaran, ezkerretik eskumara:**
Igor Lizarralde (entrenatzailea), Saioa Eizagirre, Nerea Gil, Olatz Urbizu, Maite Landaburu, Eneritz Gonzalez, Ane Larrañaga, Andrea Zubiaurre, Nerea Ruiz de Gauna, Ainhoa Usobiaga eta Ariane Peñaranda (entrenatzailea).

**Makurtuta, ezkerretik eskumara:**
Miren Agirre, Ainboa Ruiz de Gauna, Miriam Lizarralde, Leire Apellaniz, Maria Maguregi, Dafne Leo, Ainhoa Uribetxeberria eta Amaia Saenz.

**Argazkian falta da:** Oihane Garate.

# 28 lagunek hartu zuten parte Gaztetxeak antolatutako Lagun Arteko 2. Esku Pilota Txapelketan

## Orbea I eta Ibarluzea, mutiletan, eta Mora eta Lore, nesketan, izan ziren irabazleak

Ii ● niaren 27an jokatu zen Lagun Arteko Bigarren Esku Pilota Txapelketa Plaza Handian, Elgoibarko Gazte Asanbladak antolatutako txapelketan 28 lagunek hartu zuten parte. Mutiletan 10 bikote aritu ziren bi taldetan banatuta. Finalerdiak talde bakoitzeko bi bikoterik onenek jokatu zituzten. Lehen finalerdia parekatua eta gogorra izan zen, Sugar Etxaniz eta Iban Muruak osatutako bikoteak 12 eta 11 irabazi zieten Josu Egurrolari eta Joseba Elustondori, Bigarren finalerdian, berriz, Orbea I eta Lander Ibarluzeak 12 eta 9 irabazi zieten Danel Fdez. de Jauregi eta Oier Alzolari. Iban Muruak ezin izan zuen finala jokatu eta ikusleen artean zegoen 70 urteko gizon batek ordezkatu zuen. Partida emozioz betea izan zen eta Orbea I eta Ibarluzea bikoteak, 12 eta 11 irabaztea lortu zuten. Nesken txapelketan 4 bikotek eman zuten izena. Maialen Mora eta Lore batetik, eta Maialen Astigarraga eta Ione, bestetik, ailegatu ziren finalera. Azkenean Maialen Morak eta Lorek 18 eta 9 irabazi zuten partidua eta baita txapelketa ere. Dena ez zen pilotan jokatzea izan, ordea, sagardoa eta txorizoarekin frontoian hamaiketakoa egin ondoren, babamm janarekin berreskuratu baitzituzten indarrak partaide guztiek Gaztetxean.




*Txapelketan parte hartu zuten 28 pilotariek lagun arteko argazkia atera zuten partiduak hasi aurretik.*

# Egoitz Morak zilarrezko domina eskuratu du 23 urtez azpiko Espainiako Judo Txapelketaren Iparraldeko Sektorean

urtez azpiko Espainiako Judo ..)Txapelketaren Iparraldeko Sektorea Errenterian jokatu zen urriaren 28an. Egoitz Mora Ulazia 19 urteko judokak junior izateari laga eta adin maila berrira oso ongi moldatu dela frogatu zuen. 3 urte zaharragoak diren judoken aurka lehiatzea tokatu zitzaion arren, elgoibartarra ausart atera zen tatamira eta zilarrezko domina irabazi zuen. Lehen konbatea irabazteko 30 segundu aski izan zituen Nafarroako txapelduna Ippon bidez garaituz. Hurrengo bi konbateak ere aise irabazi zituen eta finalerako sailkatzea lortu zuen. Francisco Garcia, Aragoiko txapeldunaren aurka borrokatu zuen finalean. Epaileen lanak izan zuen zeresanik azken emaitzan eta Egoitzek ezin izan zuen irabazi. Dena den, bertan zeuden selekzionatzaileen zorionak jaso zituen burututako txapelketa bikainarengatik. Tamalez, irabazlea bakarrik sailkatzen zen Madrilen jokatuko den Espainiako Judo Txapelketarako.



## EMAITZAK

### Futbola

**Haundi 0** - Berio **2 (Prel.)**
Trintxerpe 0 - **Haundl 2 (Pref.)**
**Haundi 3-** Irun 1902 **2 (Prel.)**
Mutriku 0 - Elgoibar 6 **(Inf.)**
Antzuola 0 - Elgoibar 6 **(Neskak)**
Elgoibar 2 - Antoniano **1 (Jub.)**
Aretxabaleta 0 - Elgoibar **1 (Kad.)**
Elgoibar 0 Zumaiako **2 (1. erreg.)**

### Esku pilota

**Gipuzkoako Txapelketa**
Agirrebeña/lriondo **22**
BeristaintGoenaga **2 (Azkoitiako)**

MuguruzalBalzola **22**
Gandiaga/Andonegi 6 **(Eibar)**

LizarralLabaka **15 (Zurriola)**
Ulazia/Loiola **22**

### Eskubaloia

Askartza **14-** Pagoaga Elg. **22 (Kad. nesk.)**
Askartza **13-** Unceta Elg. **25 (Jub. nesk.)**
Tecnomeca Elg. 17 - Pulpo **21 (Katl. mul.)**
Pneumax Elg. **24** - Pulpo **27 (Jub. mut.)**
Barakaldo **33-** Tecnifuelle **29 (Senior mut.)**
Euskadiko selek. 27 - Unceta Elg. 28 **(Kad. nesk.)**
Euskadiko selek. 21 - Pneumax Elg. 29 **(Kad. mut.)**

### Areto Futbola

Meka I nstItutua **3** Bar Zuazo 2
Lagun Onak Ga. 1 - Samsung Eig. 3 **(Nazional B)**
Bilkoin Legorreta 3 Lanbroa Elg. 3 **(1. maila)**

### Ildarraga kafeak 5. saria

**HAUNDIko** jokalari **erregularrena 00/01**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1-Joseba Igartua | 35 |
| 2-Salaberria | 32 |
| **3-Ugalde** | 31 |
| 4-Navarrete | 20 |
| 5-Loren | 18 |
| 6-Leonardo | 18 |
| 7-Guinea | 13 |
| 8-Caro | 10 |
| 9-Elkoro | 8 |
| 10-Goikoetxea | 8 |
| 11-Azpiroz | 7 |
| 12-Bravo | 6 |
| 13-Txasio | 3 |
| 14-Aristondo | 2 |
| 15-Zubiaurre | 2 |
| 16-Mujika | 2 |
| 17-Toni | 2 |

## AGENDA

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Zapatua, 10**
**15:45** Tecnifuelle Elg. - UPV **(Senlor mut.)**
**Domekia, 11**
**11:00** Pagoaga Elg. - Ermua **(Kad. nesk.)**
**12:30** Unceta Elg. - Ermua **(Jub. nesk.)**

### Esku Pilota, lkastolan

**Barixakua, 9**
**21:00** Lagunak - Bergara **(Inf.)**
**21:30** Lagunak Bergara **(Inf.)**
**22:00** Lagunak - Aloña Mendi **(In(.)**
**22:30** Lagunak - Lazkao **(Nag.)**

### Futbola, Mintxetan

**Zapalua, 10**
**16:30** Pedrusko Gazteak (1. erreg.)
**18:15** Elgoibar Aloña Mendi (Neskak)
**Domekia, 11**
**10:30** Elgoibar - Aretxabaleta **(Aleb.)**
**12:15** Elgoibar - Eibartarrak **(Inf.)**

## 9 BARIXAKUA

**18:00 TXOTXONGILOAK**
"Mari Sorgin"
Taldea: Taupada Antzerki Taldea
Udaletxeko arkupeetan

**22:15 ANTZERKIA**
"Underground"
Taldea: Markeliiie Antzerki Taldea
Herriko Antzokian



**22:30 KONTZERTUA**
Taldeak: "Eraso" eta "Materia"
Gaztetxean
Sarrera: 500 pezeta

## 10 ZAPATUA

**19:30-22:15 ZINEA**
"Los Otros"

## 11 DOMEKIA

**8:30 BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETARA JOATEKO AUTOBUSA**
King-Kongeko autobus geltokian
Antolatzailea: Elgoibarko Udal Kirol Patronatua



**16:30 ANTZERKIA**
"Kartoi Biraka"
Taldea: Markelifie Antzerki Taldea
Herriko Antzokian



**19:30-22:15 ZINEA**
"Los Otros"

## 12 ASTELEHENA

**22:15 ZINEA**
"Los Otros"

## 14 EGUAZTENA

**9:00 AUTOBUS IRTEERA SANTANDERKO "EL DUESO" KARTZELARA**
Irteera: Kimetz Elkartetik
Izen-ematea: Kimetz Elkartean



**19:30 MIKEL ALBERDIRI ONGI-ETORRIA**
Plaza Handian

## 15 EGUENA

**21:30 ZINE KLUBA**
"Amores perros"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 16 BARIXAKUA

**22:15 ZINEA**
"Destino de Caballero"

ZINE kluba



### "AIIMPOS Perros"

**Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Iñarritu.**
**Antzezleak: Emilio Echevarria, Gael Garcia Bernal, Goya Toledo.**
Mexiko D. Fko kaleetako biolentzia eta etxe barruko dramak nahasian agertzen ditu Alejandro Gonzalez zuzendari mexikarraren lehen luzemetraiak. Auto istripu batek oso ezberdinak diren hiru pertsonaiaren bizitzaren norabidea aldaraziko du. Octavio Susanaz maiteminduta dago, baina bere anaiaren emaztea da. Danielek bere emaztea laga berri du top model batekin bizitzera joateko. Chivo, gertilari komunista ohia, berriz, hiltzaile profesionala da.

## 1KASTAROAK

**Oleo Ikastaroa**

Egur Arte Tailerrak oleo ikastaroa antolatu du. Klaseak astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara izango dira. Izen ematea Egur Arte Tailerrak Ubitarte plaza z/g duen lokalean egingo da (18:00etatik 20:00etara)

**Igeriketa monitore ikastaroa**

Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuek antolatuta, Igeriketa monitore titulua lortzeko ikastaroa antolatu da Olaizaga Kiroldegian. Ikastarioa azaroaren I6an hasiko da eta Gabonak arte iraungo du. Klaseak ostiraletan I 9:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara izango dira. Ikastaroan parte hartzeko gutxienez 16 urte beteta eduki beharko dira. Bailarakoek 40.000 pezeta ordaindu beharko dituzte eta bailarakoak ez direnek, 45.000 pezeta. Ikastaroei hasiera emateko, gutxienez, 25 partaidek eman beharko dute izena. Kopuru hau betetzen ez bada, ikastaroa Oñatin antolatuko da. Izena emateko Olaizaga kiroldegira deitu behar da (943 74 44 15).

## ERAKUSKETAK

**Arantza Urrestiren margoak**

Arantza Urrestiren margo erakusketa azaroaren 18ra arte izango da ikusgai Kultur Etxean. Azaroaren 2an inauguratu zen erakusketaren ordutegia honakoa da: astegunetan, 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

## OSPAKIZUNAK

**Mikel Alberdiri Ongietorria**

Mikel Alberdi preso elgoibartarra azaroaren 14an, asteazkenean, aterako da Santanderko "El Dueso"ko kartzelatik, 17 urte espetxean egin ostean. Arratsaldeko 19:30ean egingo zaio ongietorria Plaza Handian, baina kartzelatik irten orduko Mikel agurtu nahi dutenek, izango dute aukerarik. Santanderrera joan nahi dutenek, Kimetz Elkartean eman dezakete izena eta azaroaren 14an autobusez edo au toetan abiatuko dira goizeko 9:00etan Kimetz Elkartetik bertatik. Ongietorriko antolatzaileek herritarrak Santanderrera joatera animatu nahi dituzte.

## KIROLAK

**Karakateko VIII. Igoera**

Urgazi Triatloi Taldeak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak elkarlanean antolatzen duten Karakaterako igoeraren 8. edizioa azaroaren 17an, zapatuan, izango da. Proban parte hartu ahal izateko izena, egunean bertan eman ahal izango da, probaren hasiera baino ordu erdi lehenago. Lasterkariak Plaza Handitik abiatuko dira goizeko 10:00etan.

K

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian**

Zapatua: 19:30-22:15
Domekia: 19:30-":15
Astelebena: 22:15
**"Amores perros" tZine Klubal**
Eguena: 21:30

**EIBAR, Unzaga**
**"El Golpe Maestro"**
Barixakua: 19:30-2¹:15
Zapatua: 17:00-19:45-¹ 2:30
Domekia: 17:00-19:45-¹⁷:30
Astelehena:19:30-¹2:15
Martitiena: 19:30-22:15
Eguaztena: 19:30-":15

"1,a habitaeilm del bijo"
Barixakit: 19:30-22:15
Zapatua:19:30-22:15
1)omekia:19:30-22:15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: 19:30-22:15

BERGA edades
Otros"
BarixaLua: 22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Domekia: 17:00-19:30-22:15
Aqelehena: 22:15
**"The Filth and the Fury"**
**(Zine Eltibat**
Eguena: 20:00a

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik



## "Los Otros"

**Zuzendaria: Alejandro Amenabar.**
**Antzezleak: Nicole Kidman, Fionnula Fkagan, Christopher Eccleston.**

Bigarren mundu gerra amaitu da, baina race-en senarra ez da etxera itzuli. Grace eta bere seme-alabak Victoriar **estirkd jauregi hatean bakarrik bizi dira. Arau zorrotzetan oinarritutako** hezkuntza **erlijiosoan hezi nahi ditu amak haurrak. Hanek gaixotasun** arraro bat dute. **ezin baitute** egun argiaren **argitasuna jasan. Etxera** ailegatu herri diren hiru zerbitzariek zorrotz jarraitu **beharreko arau bat ikasi** beharko dute; haurrak dauden logelak iluntasunean **egon hehar du beti, eta ezingo da aterik** ireki aurrekoa itxi ez bada.

# erretratu zaharra

2001-X1-9



Aste honetako erretratua **Bidatz Azpiazuk** laga digu. 1919. urteko Errosario kaleko jaietan ateratakoa da. Ikus daitekeen bezala, jende ugari bildu zen urte hartako jaietan. Jende kopuruarengatik, alde batetik, eta denbora asko pasa delako, bestetik, ezin izan dugu erretratuan agertzen direnen izen abizenik bildu. Hala ere, argazkia argitaratzeko aproposa dela iruditu zaigu.



r. *URTEURRENA*
*2000ko azaroaren 8an, 44 urte zituela hil zen*
*ARANTXA IRIONDOren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 10, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*





*IE URTEURRENA*
*1997ko azaroaren 8an, 30 urte zituela hil zen*
*SERAFIN FREITAS PROLen oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 10, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



**ITURAIN & ASOC.**
ZERBITZU INMOBrLIARIO INTEGRALAK
CONSULTING **GROUP**



# ELGOIBARKO ERDIGUNEAN

## leku Ederren,

- **ETXEBIZITZAK**
  2, 3 eta 4 logela, egongela-jangela, sukaldea eta 2 bainugela.
- **GARAJE PLAZA ITXIAK**
- **KOMERTZIORAKO LOKALAK**
- **KALITATEZKO ERAIKUNTZA**
- **ORDAINKETARAKO ERREZTASUNAK**

**PROMOZ1OA eta SALMENTA Muno, S.A.**
**Trenbidearen Zumardia 13-15 . AZKOITIA**
**Tel. 943 157 007 • 609 473 933**

**INFORMAZIOA Iturain & Asoc.**
**San Frantzisko, 44 • Tel. 943 748 801**
**Tel. 670 412 073**



# lbokuak

> Bizilagunen-elkarteko arazoen konponketa
> Etxea berritzeko dirulaguntzak bideratzea
> Diru kontuen gestioa
> Berrikuntzetarako aurrekontuen prestaketa
> Aholkularitza lanak
> Obra lanen jarraipena eta gestioa

Profesionalik onenak ditugu.

a 943 740 673
**230 Posta kutxatila**
**20870 ELGOIBAR**

*Jar zaitez gure eskuetan!*









**ARAZOAK BEREHALA KONPONDUKO DIZKIZUGU.**
**HOBETU EZAZU ZURE BIZI KALITATEA!**

MORKAIKO MENDIZALE ELKAR

# VI I. ARGAZKI EH I TA



**EPA I MAHA I AREN SAR I A**
**30.000 pta.**

**I KUSLEEK EMANDAKO BOTOEN**
**Ei I DEZKO SAR I A 20.000 pta.**

**GAIA** mendio nahiz *ZURI-BELIZEAN* *NEURRIA* librea KOLOREETAN *gellienez* **NORI ZUZENDUA** *ZUZENDUA* **KOPURUA** 4 argazki konpoan *bizi* Elgoibartorrei eta diren Morkaiko E1karteko bazkideei

**ARGAZKIAK AURKEZTEKO** *EPEA*
*azaroak* 19, astelehena, Morkaikon

dLGOIBARkO
munwo
MENDIZALE ELKARTEA

OHARRAK:ARGAZKIAK NON ETA NOIZ ATERATAKOAK D1REN JARR1 BEHAR DA.AURKEZTUTAKO ARGAZK1 GUZTIEKIN ERAKUSKETA EGINGO DA KULTUR ETKEKO ERAKUSGELAN AZAROAREN 2371k ABOW1OREN BITARTEAN